

REINHOLD MESSNERREN DEIA
**ZAIN DEZAGUN
MENDIA**

JATORRIZKO BERTSIOA: "Rettet die Berge. Ein Appell von Reinhold Messner" by REINHOLD MESSNER.
©2019 Benevento, Benevento publishing.

© ELKAR ARGITALETXEAK, S.L. · SUA EDIZIOAK

Iparrañirre 26, 48011 Bilbo

Tel. 944 169 430 | www.sua.eus | sua@sua.eus

© TESTUAK: Reinhold Messner

© ITZULPENA: Ioritz Gonzalez Lertxundi

Azaleko argazkia: ©Reinhold Messnerren artxiboa

Inprimaketa: Leitzaran Grafikak

ISBN: 978-84-8216-865-4

Lege gordailua: D-0834-2023

2023ko urria

Lan honen edozein eratako erreprodukzio, banaketa, komunikazio publiko edo eraldatze egín ahal izateko, titularren baimena beharko da nahitaez, legean aurreikusita dauden salbuespenetan izan ezik. Lan honetako edozein ataleko zatiren bat fotokopiatu, eskaneatu edo era digitalean kopiatu beharra baduzu, jo ezazu CEDROra (Espainiako Eskubide Erreprografikoaren Zentroa, www.cedro.org)

Egileari buruz

Reinhold Messner 1944an jaio zen. Gure garaiko mendizale ospetsuena da; eskalatzaile, abenturazale eta ekintza-filosofo gisa mugak gainditu izan ditu behin eta berriz. Hamalau zortzimilakoak eskalatu zituen lehenengo pertsona izan zen, eta Arved Fuchsekin Antartika oinez zeharkatu zuen. Gaur egun, naturaren ikuspegi ekologiko jasangarriaren alde ari da borrokan, eta zenbait abeletxe eta Messner Mendiko Museoak kudeatzen ditu (jada sei dira). Horretaz gain, mendiko zineman dihardu, egile, zuzendari eta ekoizle gisa. Messnerren kezka nagusiak naturaren eta gizakien arteko orekak duen garrantzia gizarteari helaraztea eta mendiko eskualdeen jasangarritasuna bermatzea dira.

Aurkibidea

SARRERA. ITAKARA, BIDAIARIK EGIN GABE	9
AURREHITZA	15
1. NON GAUDE?.....	19
MENDIA, TURISMO-PRODUKTUA.....	21
MENDI OTZANDUA	23
ISILTASUNA	25
OPORRAK MENDIAN	26
BAKARDADE ESZENATOKIA.....	28
GLAZIARRAK BIZITZAREN OINARRI	31
MENDIAK ETA KLIMA-ALDAKETA	32
GIZA ERANTZUKIZUNA	33
KIROLA, JOLASA EDO ABENTURA?.....	34
ARRISKUA ETA HERIOTZA MENDIAN.....	37
BUELTAN MENDIRA.....	40
MURRIZTU, MENDIAREN BALIOA HANDITZEKO.....	42
2. MENDIA ETA BIOK	45
MENDIEN ARNASA.....	47
MENDIRA, OINEZ	49
IKUSMOLDE BERRIAK	51
ALPINISMOAREN HISTORIAREN ARRASTOEN BILA.....	53
NAHI DEN LEKURA JOATEKO ASKATASUNA.....	55
3. ALDATU BEHARREKOA	59
ZAIN DEZAGUN MENDIA.....	61
NOLA EGITEN DEN ERE GARRANTZITSUA DA.....	63
TURISMO LEUNA.....	65
EZ DAGO ORDEZKO MENDIRIK.....	67
ADI!	69
NAHIKOA INOIZ EZ DA ASKI	71
MENDIRA JOATEKO NIRE DEKALOGOIA	74
MENDIRA IGO, ZENTZURIK IZAN EZ ARREN. ELKARRIZKETA BAT	79
EPILOGOA. UR-NEGAR BAT	95

AURREHITZA

Mendi integralak

*Naturan ematen dugun urrats bakoitzean,
topatu nahian gabiltzana baino askoz gehiago jasotzen dugu.*

JOHN MUIR

Agurtzeko erabili ohi den *Berg Heil*² esamoldea sekula ez zait egokia iruditu. Jada umea nintzela, Dolomitetan eskalatzen nuenean, hitz horiek entzutean modu berebean erantzuteari uko egiten nion. Hego Tirolen, agian *Grüß gott* (kaixo, egun on) agurrarekin erantzun nezakeen, Nepalen *Namasté* (zuga dagoen jainkoari agur) esanez eta Tibeten *Tashi Delek* (bedeinkazioa eta zorrea) esanez. Nahiz eta garai hartan goretsiriko agur horrek (*Berg Heil*) zuen kutsua guztiz argi ez izan, oso zaila egiten zitzaidan neure burua hitz horiekin identifikatzea.

Mendiak babesten zituzten taldeetako kideek estereotipo zehatz batzuk zituzten ezarririk euren burua gorestekoa, eta mendiak erreserba pertsonal gisa aldarrikatzen zituzten.

Duela berrogeita hamar urte, neure buruari alpinismoaren balioak bizimodu gisa ezartzea erabaki nuenean, eskalatzen jardutea herriguneetan egotearen kontrakotzat hartzen nuen. Nire ikuspegia zuri-beltza zela esan liteke: hemen mendiak, han hiria; hemen askatasuna, espazioa eta isiltasuna, han konfinamendua, mugak eta zarata.

Garai hartan honako hau idatzi nuen: «Gure mundua programatuta dago. Lanegun bateko aukera guztiak aurreko egunetik kalkulatuta daude. Edozein arriskuren aurrean aseguratutik gaude. Ezin dut jasan gauzak modu zehatz batean bakarrik egin daitezkeela aurrez jakitea. Teknikoki, ez dut ezer hormigoia, asfaltozko errepideen edo pertsonentzat hain baliagarriak diren eraikin altuen

2. *Berg Heil* agurra mendian agur tradizional bat da, batez ere alemanez egiten den Alpeetako ekialdean erabiltzen dena. Askotan tontor batetara iristean erabiltzen da, gailurrera heltzea lortu dela adierazteko. Aipatu beharra dago agurrak *Heil* hitza duenez, nazien *Heil Hitler* agurraren kutsua izan dezakeela.

aurka, baina ni neu, mundua beti izan den bezalakoa izaten jarraitzen duen tokietan sentitzen naiz gizaki».

Gaur egun, errealista bihurtu naiz eta hirietako kultura mendietarantz hedatzen ari dela aitortzen dut, eta mendia baino harantzago eta gorago ere bai. Bi mendetan zehar alpinismoaren ezaugarri izan diren balio erromantiko asko jada sendatu zaizkit; nire ideiekin leial izaten jarraitzen dut, baina idealismorik gabe. Dagoeneko ez didate eragiten integrista batzuen kritikek, ikuspegi berekoiz bitzita bera ere eragotzi nahi baitute. Garai batean nituen egitasmo asko errealtate bihurtu dira, eta berri batzuk gauzatzeko energia eta denbora dut oraindik, nahiz eta zaharra naizen. Kontua ez da nekatuta nagoela, aitzitik, praktikoagoa bihurtu naiz eta soilik mendi integraletan eskalatzea merezi duela uste dut.

Mendi integralak osagai biren batuketa dira: paisaia naturala, iraganean lur antzua izan zena, eta paisaia kulturala, gizakiek mendez mende modelatu, birmoldatu eta zaindutakoa. Mendi integrala kontzeptua bi paisaia horien arteko elkartetik sor daiteke soilik, paisaia berezi baten irudi eta, aldi berean, adierazpen paregabea.

Ezin da irudikatu paisaia bat bestea gabe. Paisaia kulturala, egoki erabiliz gero, mendiko biztanleei habitat iraunkorra bermatzen die eta eraldaketaren mende dago. Eta, haren gainetik, paisaia naturala dago, garai batean bertako biztanleentzat antzua, lur idorrok gehiegikeriatik babesten dituzten osagaiez hornituta: zirkoak, arroak eta glaziarak. Paraje bikaina, ezin ederragoa, garai batean gizakiei bertara heltzea galarazi ziena.

Mendi aratz horiek gidari, oztopo eta mito bihurtu ziren, baina, batez ere, menderaezin, haien baitan gorde zituzten zailtasun, ezusteko eta arriskuen ondorioz. Mendi haietako isiltasun eta handitasunari begirunea zor zieten, jainkoenak balira bezala. Ezaugarri horiek gizakiena ez den arrisku-eremu batean daude, eta hori aldatzen ez bada, mendia babestu beharrik ez dago. Indarra mendiaren funtsezko ezaugarria da.